


# Abarkagintza

## Eskolan egiteko ariketak





## Bisita egin baino lehen

Laster abarkak egiten diren leku batera joango zara "Astiazaran" baserrira. Baina, badakizu zer diren abarkak?

- Ontzi handi bat.
- Larruz egindako oinetako mota.
- Fruta jasotzeko saski mota.



\* Marraz ezazu abarka bat.



Erabili al dituzu noizbait?  Bai  EZ

Zertarako? .....

Erosoak al dira?  Bai  EZ

Futbolean jolasteko egokiak direla uste al duzu?  Bai  EZ

Eta mendian ibiltzeko?  Bai  EZ

Zergatik? .....

Zein desberdintasun ikusten duzu abarka eta gaur egunean erabiltzen dituzun oinetakoekin? (gutxienez hiru aipatu)

Abarkak

..... zorua larruzkoa .....

..... takoi gabe .....

..... gogorrak .....

Zure oinetakoak


..... zorua goma, plastikoa .....






..... takoia .....

..... bigunak .....



## Letra zopa

 Aurki itzazu jarraian ageri diren hitzak hizki zopan (goitik-behera, behetik gora, eskuinetik ezkerrera eta ezkerretik eskuinera):

-  1. Labana: larrua mozteko erabiltzen den tresna. Ahoa, kirtenean sar daiteke.
2. Artilea: ardi, ahari, eta kideko animalien ilea.
3. Larrua: animalien gorputza biltzen duen azala.
-  4. Kautxua: landare tropikal batzuen izerditik lortzen den material elastiko eta moldeagarria.
5. Mailua: kolpeak emateko esku-erreminta, metalezko buru begidun batez eta bertan sartzen den kirten batez osatua.
-  6. Abarkari: abarka zangoan lotzeko erabiltzen den lokarria.
7. Aiztoa: altzairu edo burdinazko orri zorrotza eta kirtena, duen erreminta.
8. Behorra: zaldiaren eme heldua.
-  9. Argizaria: erleek egiten duten kolore arreko substantzia. Beroarekin erraz urtzen da. Kandelak egiteko eta egurrari emateko erabiltzen da.
-  10. Kalamu: sokak eta oihal sendoak egiteko erabiltzen den landare klase bat. Zuntza zurtoinetik ateratzen da.



A	G	E	L	N	A	R	G	I	Z	A	R	I	A
F	E	D	N	O	N	U	I	E	R	T	F	Z	A
Z	A	R	U	K	A	L	A	M	U	T	O	L	O
A	K	U	R	I	B	A	I	K	O	Z	T	E	T
G	A	R	R	O	A	R	T	I	L	E	A	K	I
A	U	R	R	A	L	O	R	L	A	R	T	A	L
R	T	U	Z	I	A	B	A	R	K	A	R	I	S
T	X	K	U	G	U	E	K	O	L	A	G	Z	E
I	U	O	Z	T	E	H	L	O	Z	I	O	T	U
M	A	I	L	U	A	O	A	N	E	L	I	O	S
O	S	T	E	L	E	R	B	U	B	O	J	A	K
M	I	K	O	L	A	R	O	S	P	E	A	Z	I
A	R	I	Z	E	N	A	S	T	O	L	D	U	A


## Bisita egin ondoren

Astiazaranetik bueltan errepaso txiki bat egingo dugu.  
 Gezi bidez lotu itzazu?

Harri tartean ibiltzeko egokituak

Lokatza gainean ibiltzeko prest

Paretatik igotzeko ezin hobeak





Gizakiok ere antzeko zerbait egiten dugu. Lotu modu egokian:

Arrantzalea



Medikua




Baserritarrak



Baserritarrak,  
Dantzariak




Dantzariak,  
Erriberako  
baserritarrak



Elur gainean norbait  
Eskimala



Submarinista



Hondartzara doan  
norbait



Emakume bat  
saloi batean



Zutik denbora  
asko egon behar  
duzunerako

Bero egiten  
duenerako

Putzuak dauden  
lekutan ibiltzeko

Ûretatik desplazatu  
ahal izateko

Elegante joateko

Lokatza edo gorotza  
tartean ibiltzeko,  
hotzetik isolatzeko

Arin dantzatzeko,  
euri gutxi egiten  
duen lekutan  
oinetako freskoak

EZ ondoratzeko

Belar tartean  
ibiltzeko, tradiziozko  
oinetako mota






Gogoratzen al duzu zein tresna edo material erabili duzun abarkak egiteko? (X bat jarri ondoan)

- |   |  |
|---|--|
| <input type="checkbox"/> plastikoa          | <input type="checkbox"/> oihala                |
| <input type="checkbox"/> haria              | <input checked="" type="checkbox"/> argizaria  |
| <input type="checkbox"/> artilea            | <input checked="" type="checkbox"/> larrua     |
| <input type="checkbox"/> kautxua            | <input type="checkbox"/> goma-apar             |
| <input type="checkbox"/> kola               | <input type="checkbox"/> tintak                |
| <input type="checkbox"/> kotoia             | <input type="checkbox"/> pintura               |
| <input type="checkbox"/> kortxoa            | <input type="checkbox"/> botoiak               |
| <input checked="" type="checkbox"/> kalamua | <input checked="" type="checkbox"/> guraiizeak |
| <input type="checkbox"/> nylon              |  |

Abarkak gaur egun:  
 Ezagutzen den oinetakorik zaharrena, larru pusqueta bat da. Ehizatzen ziren animalietatik soberan gelditzen zen zati bat hanketan lotu eta aurrera! Abarken aitzindaria izango zen ziurrenik. ...zein abantaila du oinak babesteko sistema honek hankahutsik joatearekin alderatuta?



*Isolamendua, hotza, beroa, lurrean dauden harri kozkor eta arantzetatik babestea, oina babestu eta orkatila ere (abarkariarekin, Sokak ez ziren jartzen dantzariak orain eramaten dituzten moduan, baizik eta orkatila bihurritu ez zedin buelta guztiak orkatilaren inguruan ematen zitzaizkion).....*



Abarkak egiteko pausuak. Prozesua ordenatu:




4




1



2




3




5





Abarkak egiten dituen baserritarra ezagutu duzu, baina badira eztiak, gazta, baratzkiak, ogia, frutak, lore eta landareak, ekoiztu eta azokara saltzera joaten diren beste batzuk ere, ezagutzen al dituzu?



“Baserria, natur eskola bizia” programak baserriak, baserritarrak, beraien tailerrak, baratzak, produktuak,... ezagutzeko aukera ematen dizu, eta gainera beraien ikasi eta zu zeuk ere kandelak, abarkak, ogia eta beste hainbat gauza egiteko gai izango zara. Animatu eta joan zaitez zure inguruan dituzun beste baserri eta baserritar ezagutzera!

